

# Euskaldunaren hitza ez da ur gaineko bitza



9 ordu 50'

## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

1. Irakaslearentzako oharrak .....	2. or.
2. Ikastunitatearen ibilbidea .....	4. or.
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak .....	6. or.

### 2. Atazak

<b>A Ataza:</b> Ikusi eta ikasi.....	8. or.
<b>B Ataza:</b> Zorria baino alferragoa	
B.1. Zelan ikasi gura duzu?.....	10. or.
B.2. Bai, baina, baina... bainak lapikoan!.....	12. or.
<b>C Ataza:</b> Aldatu zeure azturak .....	14. or.
<b>D Ataza:</b> Ohean eta binaka .....	15. or.
<b>E Ataza:</b> Jaldi hadi plazara! .....	17. or.

### 3. Eranskinak

1. Portafolioa .....	19. or.
2. Bideo-pasarteak .....	20. or.

## 1. SARRERA<sup>1</sup>

Lehenengo unitate honen helburua ikasleek beraien ikasteko moduz hausnartu eta hobetzen joateko bidea erakustea da. Ikastunitatean zehar, ikasleak nor bere ikasteko modua aztertuko du, taldekideekin elkarlanean. Amaieran, bere ikasteko modua hobetzeko konpromezua hartuko du. Konpromezu horren jarraipena bideratzeko mural bat egingo dute ikasle guztiek. Bertan, egunez egun, jasoko dute euskara ikasteko egiten duten guztia.

## 1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Hizkuntza baten ikaskuntza beste ikaskuntza-mota batekin uztarturik egon ohi da, hizkuntzak ikasteko teknika eta trebetasun eraginkorren ikaskuntzarekin, hain zuzen ere. Beste modu batera esanda, euskara-ikasleek euskara ikasteaz gain, euskara ikasteko modua ere ikasi behar dute, ikasten ikasi, alegia.

Ikasleek ikastunitate honetan egingo duten lana ildo horretatik doa, eta bi bideak jorratzea du helburu.

Horregatik, ikastunitatearen helburu orokor gisa, honako hau planteatzen da: ikasleek dituzten ikas-estrategiak hobetzea. Helburu orokor hori zehazte aldera, honako puntuok izan beharko dira gogoan, besteak beste:

- Ikas-estiloen ezaugarriez gogoeta egin eta norberak ikasterakoan dituen alderdi sendo eta ahulak atzematea.
- Klaseko jarduerak aztertu eta horien aurrean izaten duten jarrerari buruz gogoeta egitea.
- Inguruak eskaintzen dituen ikaskuntz baliabideak aztertu eta horiek ustiatzeko erabakiak hartzea.
- Irakurmena, entzumena, mintzamina eta idazmena garatzeko azpitrebetasunak lantzea.
- Ataza honetan erabilitako ikas-prozeduren autoebaluazioa egitea.

---

<sup>1</sup> Ataza honek badu Ernesto Martin Peris-en *A de Aprender* atazari zer eskertu. Baita David Nunanen hainbat lani ere.


Helburu horiek guztiak lortzeko, ikastunitatean proposatzen den ibilbidea egingo dute ikasleek. Ibilbide horren buruan ikasle bakoitzak bere ikasteko modua hobetzeko konpromezua hartu beharko du.

Ibilbideari dagokionez, ikastunitate honen esperimentazioak erakutsi du ataza guztiak jarraian burutzea nekagarria izan daitekeela hainbat ikaslerentzat. Hori dela eta, bi aukera hauek proposatzen dizkizugu:

- Ikastunitatearen ibilbideari jarraitzea, baina ataza guztiak egin gabe. Adibidez, hasiera batean A,B,D, E atazak eginez eta besteak (C ataza eta osagarriak) aurreragorako utziz.
- Lehenbizi, A eta B atazak egitea eta besteak ikastaroan zehar tartekatzea.

Eta bukatzeko, prozesuaren ebaluazioa behar bezala egin ahal izateko, portafolioa erabiltzea proposatzen dizugu *Barrenet* materialaren metodologia eta syllabus-mota kontuan harturik (ikus 3.1. eranskina). Oso tresna egokia baita, gure iritziz, ikasleen jarraipena jasotzeko. Horrezaz gain, ikastunitate guztien bukaeran autoebaluazio-orria aurkituko duzu ikaslearenean eranskin gisa.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



**C. ALDATU ZEURE AZTURAK**  
– Ikas-estrategia eraginkorrak  
– Nominalizazio-arauak formulatu  
(14. or. irak. lib.) (15. or. ik. lib.) MINTZ



**D. OHEAN ETA BINAKA**  
– Klaseko gustuko jarduerak aukeratu  
– Gustuak ikaskideen aurrean azaldu  
(erregistro formalagoa)  
(15. or. irak. lib.) (17. or. ik. lib.)  
ENTZ/MINTZ



**E. JALGI HADI PLAZARA!**  
– Ikasle arrakastatsuak klasetik kanpo  
– Euskaltegitik kanpo zer egin  
– Murala  
(17. or. irak. lib.) (21. or. ik. lib.)  
ENTZ/MINTZ/IDAZ



**IKASLEEN AUTOEBALUAZIOA**  
(24. or. ik. lib.)

**NOMINALIZAZIOA  
BIRPASATZEKO ARIKETA**  
– Komikia: nominalizazio-arauak  
(38. or. ik. lib.) IRAK  
OSAGARRIAK



**DASTATU LITERATURA:  
ABEREEN ETXALDEA  
(G. Orwell)**  
– Liburuaren lanketa  
(42. or. ik. lib.) IRAK  
OSAGARRIAK



## 3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

**Helburu nagusia** • Ikasleek beraien ikasteko moduaz hausnartu eta hobetzeko konpromezua hartzea.

**Lexikoa**

- arauak formulatu	- esaldi eginak	- ikasle-perfila
- ataza	- euskara-ikasle	- ikasteko modua
- aurreikuspenak egin	- hausnartu	- jarduera
- aztura	- hitzak sailkatu	- jatorrizko hiztunak
- bakarka, binaka...	- hizkuntz baliabideak	- prozedura
- berbaldia	- huts egin	- teknika eraginkorra
- buru txarra/ona izan	- ikas-erritmoa	- testuingurua
- buruz ikasi	- ikas-estrategiak	- zuzendu
- elkarrizketak asmatu	- ikas-inguru/ikasteko egoera	

**Mintzagaiak** • Ikasteko moduak  
• Ikas-estrategiak

**Elkarreragina** • Bakoitzak zelan ikasi duen eta zelan ikasi nahiko lukeen besteei azaltzea (B1)  
• Proposamen baten alderdi onak eta txarrak eztabaidatzea (B2)  
• Aukera jakin batzuen gaineko arrazoiak azaltzea (C)  
• Jarduera desberdinetan gustuko/ez gustuko teknika eta prozeduren berri ematea, zergatietan sakonduz (D)  
• Konpromezu bat bideratzeko erabakiak elkarrekin hartzea (E)

**Komunikaziorako azpitrebetasunak**

- Nork bere ikasteko moduaz hausnartzea (Ikastunitate osoa)
- Nork bere ikasteko modua hobetzeko erabakiak hartzea (E)
- Entzundako testua interpretazio desberdinekin lotzea (A)
- Aurreikuspenak egitea eta egiaztatzea (B1/2)
- Arrazoibide induktiboa erabiliz, arauak formulatzea (C)
- Berbaldi batzuetatik interesatzen zaizkien datu jakin batzuk aukeratzea eta jasotzea (D) (E)

**Gramatika eta  
diskurtsoa**

- Zalantza edo ziurtasunik eza adierazteko hizkuntz baliabideak birpasatzea (beharbada, antza, ... -(e)la dirudi, badirudi...-(e)la, baliteke...-tzea; ...) (A)
- Arrazoibide induktiboa erabiliz, nominalizazio-arauak formulatzea (C)
- Azalpenezko testu batean, berbaldia antolatzeke hizkuntz baliabideak identifikatu eta erabiliz nork bere berbaldia erregistro formalera egokitzea (D)
- Proposamenei kontra egitea, hainbat argudio-forma erabiliz (B2)

**Euskal  
kultura/gizartea**

- Euskal musika ezagutzea eta ulertzea (A)
- Hizkuntzaren ideologia: animalien bidezko sinbologia (B1)

## Ataza: Ikusi eta ikasi



110'

### Helburuak:

- Entzungo duten kanta kalifikatzea, maiztasun handiko adjektiboak erabiliz.
- Abesti baten mezuaren interpretazioak eztabaidatzea.
- Berbaldiri zalantza-kutsua ematen dioten hainbat baliabide azpimarratu eta irakaslearen gidaritzapean birpasatzea: beharbada, antza, ...-(e)la dirudi, badirudi... -(e)la, baliteke... -t(z)ea,...

### Zertan den:

Ikastunitatearen sarrera egiteko, bere lan-prozedurara hurbiltzeko eta bideo-pasarteetako pertsonaia eta egoerak ezagutzen hasteko balioko du ataza honek.

Ikasleek entzungo duten abestiaren gaineko interpretazioen egokitasuna eztabaidatuko dute. Bide batez, zalantza-kutsua adierazteko hizkuntz baliabideak ere landuko ditugu ataza honetan

## PROZEDURA:

# 1

### Atazaurrea: kanta adjektiboan bidez deskribatu

- Irakasleak honako galdera honekin emango dio hasiera klaseari: *Kanta berri bat entzuten duzuenean, zeri erreparatzen diozue letrari, musikari?... Komenta dezatela labur-labur.* (5')
- Ikasleek, bakarka, emandako adjektiboak aztertuko dituzte antonimoak identifikatzeko eta hitz-pareak (antonimoak) identifikatutakoan, taulan jasoko. Ez dago erantzun zuzen bakarra: badira bi antonimo egokitzen zaizkien berbak. (10')
- Delirium Tremens-en *Ikusi eta ikasi* diskoaren *Ikusi* abestiaren aurkezpen<sup>2</sup> (zein talderena den, noizkoa den, etab.) egingo du irakasleak. Ikasleren batek zerbait badaki, talde osoaren aurrean azalduko du. (5')

2 *Delirium Tremens* talde mutrikuarraren ibilbide musikala labur samarra izanda ere (1985-1991), oso arrakastatsua izan zen. Andoni abeslariaren ahots bitxia eta berezia zen Deliriumen soinuaren bereizgarria; baita beroren kitarra jotzeko era ere.

Hiru dira grabatu zituzten diskoak: *Ikusi eta ikasi* (1989), *Hiru aeroplano* eta laburpen eta agur gisa zuzenean grabatutako *Bilbo zuzenean* (1991). Oso disko bikainak, inoren eta ezeren antzik ez dutenak.

Ahotsak eta kitarak: Andoni. Baxua: Patxi. Bateria: Txufu.



- Abestia entzungo dute ikasleek<sup>3</sup>. (Garbi utzi entzunaldi honen amaieran ez zaiela aparteko ezer eskatuko, inpresio subjektiboa zehaztea besterik ez.) (3')
- Ikasle bakoitzak, egindako antonimoen taulara joko du eta horko adjektiboen artean *Ikusi eta ikasi* abestiarentzat aproposak iruditzen zaizkionak aukeratuko ditu. (5')
- Irakaslearen gidaritzapean, talde osoan, aukeratutako adjektibo guztien erreposoa eta komentarioa egingo da. (10')

## Ataza: kantaren interpretazioa

- Ikasleek abestiaren letra irakurriko dute.(5')
- Binaka jarrita, emandako interpretazioen egokitasuna eztabaidatuko dute, desegokiak iruditzen zaizkienak baztertzuz. Aipatu ez dagoela erantzun zuzenik, egin beharreko aukera erabat subjektiboa dela eta eztabaidatzea dela helburua. (15')
- Bikote bakoitzak talde osoaren aurrean azalduko du zein interpretazio baztertu dituen eta zergatik.
- **1. bideo-pasarte**a ikusiko dute, bertan Antton eta Kattalin kantaren interpretazioaz ari dira. Hizpidea ematen badu, denon artean komentatu. (10')


## Feedbacka

- Ondoren, **2. bideo-pasarte**a ikusi. Pasarte honetan Delirium Tremens taldeko kantariak abestiaren esanahia adierazten du. (Kontua ez da ikasleek egindakoa zuzentzea, baizik eta testigantza interesgarri horren berri izatea eta eztabaidari amaiera ematea.) (15')

**Oharra:** Ikasleei zaila egiten zaie bideo-pasarte hau; beraz, bizpahiru aldiz ikus dezatela. Eta, hala eta guztiz ere, ulertzen ez badute, transkripzioa (3. 2. eranskina) emango diezu.

## Gramatika eta diskurtsoa: zalantza-kutsua

- Amaitzeko, ikasle bakoitzak hamar esaldiak irakurri eta aztertuko ditu berriro. Oraingoan zalantza-kutsua duten esaldiak eta bestelakoak bereizten saiatuko dira, ziurtasuna/zalantza taulara eramanez. (5')
- Guztion artean, zalantza markatzen duten hizkuntz baliabideak identifikatu eta zerrendatuko dira arbelean. Horien erabileraz behar diren argibide guztiak eman beharko ditu irakasleak. (15')



IK. LIB. 4.1.

Ikasleek zalantza-kutsua adierazteko hizkuntz baliabideak gehiago landu nahi izanez gero, beren liburuko material osagarrietan 4.1. ariketa dute.

## Atazaostea: entzun eta kantatu

Berriro entzun abestia eta abestu. (3')

<sup>3</sup> Diskorik izan ezean, kantaren hasiera **1. bideo-pasartean** entzuteko aukera dago

## Ataza: Zelan ikasi gura duzu?



65'

### Helburuak:

- Nork bere ikasteko moduz hausnartzea.
- Konparaziozko esapideak erabiltzea gauzak eta jarrerak definitzeko.
- Ikastunitateko txantiloia (alderdi sendoak / alderdi ahulak) betetzen hasia.

### Zertan den:

Ariketa honen bidez, ikasleek gaiaren aurkezpena jasoko dute eta baita bideo-ko pertsonaia eta egoeraren inguruko informazioa ere. Hori guztia aitzakia hartuta, beren ikas-esperientziari buruz berba egitera bultzatuko ditugu, beren ikas-estiloa definitu beharko dute emandako konparaziozko esaldi batzuen bidez.

## PROZEDURA:

# 1

### Atazaurrea

- Girotzen hasteko, ikasleek euren liburuko lehenengo ariketa egingo dute. *Zuok, ikasleok, ... baino ... zarete* esaldiko hutsuneak beteko dituzte aurreikuspenak eginez eta, banan-banan klasearen aurrean, egindako aukera arrazoituko. (15')
- **3. bideo-pasarte** ikusiko dute. Egoera ulertu ondoren, Kattalinen amaginarrebak esaten duena jasoko dute. Erkatu tabernariak esandakoa ikasleek ipinitako ideiarekin. (5')
- Momentu egokia da jakinarazteko hizkuntza bakoitzak bere erreferentziak dituela baloreei buruz. Esaterako, euskarazko *azeria baino lotsagabeagoa*, gaztelaniazko *más fresco que una lechuga/un jetas dela*. (10')



IK. LIB. 4.2.

Ikasleek puntu honetan sakondu nahi izanez gero ariketa berezia dute ikaslearen liburuan (material osagarrietako 4.2. ariketa).

Bertan, I. Uriarteren *Txerria* artikulua irakurri behar dute, idazleak animaliei egozten dizkien baloreak bilatuz.

Iñaki Uriarteren artikulua tesi nagusia azalduko die irakasleak, eta ikasleek irakurketa xehea egingo dute, ikaslearen liburuko ariketa osagarriko animalia/balorea taularako datuak ateratzen saiatuz<sup>4</sup>.

## Ataza: norberaren ikas-estiloa definitzen

- Bakarka, ikaslearen liburuan dagoen taula beteko dute, marrazkien ondoan dauden esaldiak sailkatuz. (5')
- Binaka edo hiru bika bilduta, egindako aukerak komentatuko dituzte. (15')

## Feedbacka

- Denon arteko bideratzeko, *Barea bezain motel* eta antzeko esapideak zein zutabetan ipini dituzten eta zergatik galdetu. (15')

Saia zaitez ikasleen erantzunak komentatzen eta, behar izanez gero, argibideak ematen. Feedback horrek hiru helburu ditu:

- Ikas-prozesu bakoitza desberdina dela ikustaraztea eta topikoak apurtzea.
- Alde makalenak identifikatuta, beste aldera jotzeko premia adieraztea.
- Beste aldera jo behar hori tekniken bidez lor daitekeela jakitera ematea.

**Oharra:** Agian, kasuren batean, konparaziozkoak birpasatzea komeniko da. Etxerako lana izan daiteke.

---

4 Ariketa hau material osagarrien artean duzuen arren, klasean egiteari oso komenigarri irizten diogu. Kontuan izan, alde batetik, testuaren zailtasuna eta bestetik, hizkuntza eta kulturaren arteko azalpenak emateko aproposa dela. Artikulua ez da irakurterraza eta agian ikasleen lana bideratu beharko duzu.

1. Batetik erreferentzia kultural franko ageri direlako. *"Txerriaren urtean gaudela..."* esaldiak horoskopoko txinatarrari egiten dio aipu: "...*Australiako ostrukaren irakaspak...*" esaten duenean, Atxagaz ari da; eta, azkenik Orwellen *Abereen etxaldea* aipatzen digu.

Ikasleei esan:

- artikuluko nabardura guztiak ulertzen saiatu beharrean ariketan eskatzen zaiena egitera mugatzen badira, aipu horiek ez dietela oztoporik egingo; eta.
- kontu egiteko ulermenaren arrakasta munduaren ezagutzaren heinekoa ere badela.

2. Bestetik, bizkaieraren ezaugarri diren hainbat forma aurki ditzakete: ei (omen), zelan (nola), aurpegiagaz (aurpegiagaz), higuina (nazka),... Horrek ere ulertzea oztopa diezaieke, bizkaiera tutik ere jakin barik, testua hitzez hitz ulertu nahi badute.

## Ataza: Bai, baina, baina... bainak lapikoan!



125'

### Helburuak:

- Proposatutako ideia batzuen kontrargudioak ematea hainbat argudio-forma ezberdin erabiliz (adibidez: aurkaritzakoak, kontzesiboak).
- Entzun aurreko aurreikuspenak egitea.

### Zertan den:

Cyber-tabernaren inguruko proposamena eztabaidatuz (argudioak / kontrargudioak) ikaskuntzaren inguruan dituzten uste eta topikoak plazaratzeko aukera emango diegu ikasleei.

## PROZEDURA:

### 1

**Atazaurrea:**  
egoera girotu  
bideoa  
ikus-entzunez

- **4. bideo-pasartearen** lehen zatia ikusiko dute. Bertan, aurreko bideo-pasartean eza-gututako ikasle berak agertzen dira Kattalinekin hizketan. Ikasleek cyber-tabernaren abantailak azaltzen dizkiote tabernariari. (15')
- Entzun ostean, banaka, ikasteko sistema horrek *ikasleen* ustez dituen abantailak islatuko dituzte taulan. (15')
- **4. bideo-pasartearen** bigarren zatian, tabernariak negozio horri oztopoak jarriko dizkio. Ikasleek, euren orrian, bideoko ikasleek tabernariari nola erantzungo dioten oztopo horiek gainditzeko aurreikusiko dute hirunaka. (15').
- Ikasleek euren aurreikuspenak egiaztatuko dituzte **4. bideo-pasartearen** bigarren zatia ikus-entzunez (10').

**Ataza:**  
taula bete  
aurkaritzakoak  
eta  
kontzesiboak  
erabiliz

- Ikasleak taularako desabantailen zutabetxoan *fikziozko ikasleen* proposamenaren kontrargudioak prestatuko dituzte binaka. Helburua ordenagailuz edo bakarka ikastearen alde ahulak bistaratzea da. Esan aurkaritzakoak eta kontzesiboak erabiltzeko. (15')
- Sei parametroak (*irakaslea, lagunarteko giroa...*) gardenki banatan ipini eta bikoteek parametro bakoitzarentzat asmatutako kontrargudioa jasoko dute gardenki horietan. (20')



	ABANTAILAK	DESABANTAILAK (kontrargudioak)
<b>Irakaslea</b>	Irakaslea ez da beharrezkoa, ordenagailuak primeran egiten ditu irakaslearen lanak.	Irakaslea ez da beharrezkoa, baina lagun dezake.
<b>Lagunarteko giroa</b>	Tabernan lagunaren artean giro ona sortzen da, ikasleak motibatzen dira eta asko ikasten dute.	Lagunarteko giroa lasaia, bai. Hala ere, askoz hotzagoa da.
<b>Ikas-erritmoa</b>	Ikasleek beraiek finkatzen dute erritmoa eta ez beste batzuei komeni zaiena.	Ikas-erritmoa norberak ezarritakoa izanda ere, ezin ukatu oso motela izaten dela.
<b>Material aukeraketa</b>	Ikas-materialak aukeran izan ditzakete ikasleek, Internet-i esker instant batean komunika baitaitezke urrutiko arxibo batekin.	Material aukeraketa ikasleen esku geratzen bada ere, gerta liteke zer aukeratu behar duten ez jakitea, irizpide garbirik ez dutelako edo.
<b>Inguruko laguntza</b>	Beste pertsonekin komunikatzeko aukera eskaintzen die Internet-ek.	Beste ikasleek emandakoa, laguntza baino, eskaria izan daiteke, beraiek ez dakitelako. Irakasleak, ordea, bat-batean eman dezake laguntza hori.
<b>Ebaluazioa</b>	Etengabeko autoebaluazioa ematen da.	Autoebaluazioa eginagatik ez da aurrerabiderik egiten, zeure burua engaina baitezakezu.

### Informazioaren feedbacka

- Gardenkiak proiektatu. Pauso honek honakoa du xede: bakarka edo ordenagailuz ikasteak dituen hutsuneak saihas daitezkeela taldean eta elkarreaginean ikasiz. (20')

### Formaren feedbacka

- Berrito proiektatu gardenkiak: erabilitako egituren egokitasuna neurtu eta kontrargudioa adierazteko erabili diren aurkaritzako eta kontzesiboak era sistematikoan azaldu beharko dira, ikasleen outputaren kalitatearen arabera. (15').



IK. LIB. 4.3.

Ikasleek gramatikako eduki horiek gehiago landu nahi izanez gero, beren liburuko osagarrietan, 4.3. ariketa dute.

## Ataza: Aldatu zeure azturak



50'

### Helburuak:

- Indukzio bidetik nominalizazio-araua formulatzea.
- Zerrenda batetik ikas-estrategia eraginkorrenak aukeratzea.

### Zertan den:

Zenbait ikas-estrategia aurkeztu eta berorien eraginkortasunaz gogoeta egitera bultzatu nahi ditugu ikasleak. Bide batez, hainbat esaldi aztertu ondoren, nominalizazio-araua formulatu beharko dute.

## PROZEDURA:

1

### Ataza: ikas-estiloekiko identifikazioa

- Ikasleak bere liburuan ikas-estrategien gaineko esaldiak aurkituko ditu. Ikasleari esaldirik garrantzitsuena eta garrantzirik gutxienekoa bakarka aukeratzeko eskatzen zaio. (5')
- Talde txikitan, nor bere aukeren berri eman, alderatu eta eztabaidatu egingo dituzte. (10')

### Feedbacka

- Talde handian, eta irakasleak gidatuta, banan-banan aztertu ikas-estrategiak; berorien alde eta aurka atara diren argudioak plazaratu, feedbacka emanez. (20')

2

### Ataza: nominalizazio- araua formulatu

- Fokoa nominalizazioan jarriko dugu, beronen arauak formulatzean, hain zuzen ere. Horretarako, talde txikitan galdera honi erantzuten saiatuko dira: *zergatik agertzen dira atzizki horiek guztiak?* (10')
- Taldekideekin eztabaidatu ondoren, arrazoiak ematen edo/eta araua formulatzen ahaleginduko dira. (5')

**Oharra:** Garrantzitsuena ez da araua ondo formulatzea, baizik eta ikasleak hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko hipotesiak egiten eta beraien artean hitz egiten ohitzea.

### Feedbacka

Bi aukera daude:

- Irakasleak emango die feedbacka ikasleei.
- Ikasleek egiaztatuko dute formulatutako araua, material osagarrietan daukaten 4.4. ariketaren bidez.



IK. LIB. 4.4.

## Ataza: Ohean eta binaka



165'

### Helburuak:

- Azalpenezko testu baten analitik ateratako hizkuntz baliabideez nor bere berbaldia erregistro formalera egokitzea.
- Klaseko ohiko jarduera batzuk aztertzea eta nola burutu nahi izaten dituzten adieraztea.
- Jarduera horiek hobetzeko proposamenak jasotzea.

### Zertan den:

Ataza honetan, klaseko ohiko jarduera batzuen azterketa bideratu nahi dugu eta, horrekin batera, ikasleei euren gustu eta ikas-ohiturak azaldu eta komentatzeko aukera eman. Bide batez, euren azalpena erregistro formalera egokitzeko hainbat antolatzaile eta hizkuntz baliabide erabiltzen saiatuko dira.

## PROZEDURA:

# 1

### Atazaurrea: bideo-pasarteak ikus-entzun

- *Kaleko inkesta*, **5. bideo-pasarteak**, ikusiko dute. Bideoan entzungo dute jendeari non eta nola ikastea gustatzen zaion: nor bere kabuz, taldeka, liburutegian, etxean... Horrez gain, hizkuntzen ikaskuntzaz ez ezik ikaskuntza orokorraz ere jardungo dute bideoko pertsonaiek.
- Entzun ahala, ikaslearen liburuko taula beteko dute banaka. (5')
- Binaka, tauletan jasotakoa erkatuko dute. (5')
- Guztien artean zuzenduko dute, irakaslearen gidaritzapean. (5')

### Ataza: norberaren gustuak ageri

- Ikaslearen liburuan agertzen diren jardueretako bakoitzean zer egitea duten gustuko/ez gustuko, zelan (bakarka, taldeka...) eta non idatzi beharko dute. (15')
- Hirunaka bildu, eta prestatutako taula horien berri eman elkarri guztion artean, egingako aukeren zergatietan sakonduz. Aukeren alderdi onak eta txarrak baloratuko dituzte. Euren artean, modu informalean egingo dute; dena den, gero berrartuko dugu ataza eta azalpenaren fasean modu formalagoan landuko. (20')

### Jatorrizko hiztuna entzun

- Ikasleek **6. bideo-pasarteak** entzungo dute birritan. (10')
- Ikasleek taulak beteko dituzte, nor berean hitz gakoak idatziz. (5')

## 2. Atazak

### D

#### Gramatika eta diskurtsoa

- Hirunakako informazio-trukaketa bideratuko da, ikasleek taulan ahalik eta informazio gehien bil dezaten. (10')
- Adituaren azalpenaren transkripzioa eman (ikus eranskinetan 6. bideo-pasartearen transkripzioa). Diskurtsoa antolatzeke hizkuntz baliabideak azpimarratuko dituzte: gaiari hasiera/bukaera ematekoak, esandakoa hobeto zehaztu, birformulatu edo argitzeakoak ... (10')
- Ondoren, euren liburuan daukaten baliabide-taulan begiratuz, transkripzioan azal dutakoen ondoan (X) jarriko dute. (5')
- Hirunaka jarrita, azal dutako baliabideak aztertuko dituzte: esanahia, funtzioa ... (10')
- Baliabide berriei dagokienez, lehenbizi buruz ikasten saiatuko dira eta, horrezaz gain, txarteltxotan idatziko dituzte (txarteltxo bat baliabide bakoitzeko) aurrerago egingo duten azalpenean erabiltzeko. (10')

#### Prestaketa

- Ondoren, azalpena prestatzeari ekingo diote. Ikasleek azalpenaren edukia (ataza honen hasieran betetako gustuen gaineko taula) eta forma (baliabideen txarteltxoak ...) prestatuko dute. (15')

#### Azalpena: gustu eta argudioen azalpena

- Ikastaldea bitan banatuta (7/8 laguneko taldetan), ikasle bakoitzak nola ikastea gus-tatzen zaion azalduko die besteei. Adituak bideo-pasartean emandako formak era-biltzea komeni da. Irakasleak talde bietan esandakoa ondo jaso ezingo duenez, tal-deek idazkari bana izendatuko dute, kide bakoitzaren segimendua egin eta ataza honetan erabilitako hizkuntzaren egokitasuna balora dezaten (30')

#### Feedbacka

- Idazkari bakoitzak jasotakoaren berri emango du denen aurrean. (10')
- Momentu hau egokia da gabezi linguistikoak lantzeko, zalantzak argitzekeo ...



## Ataza: Jalgi hadi plazara!



### Helburuak:

- Hainbat ikasle arrakastatsuk klastetik kanpo erabili dituzten estrategiak identifikatu eta norberarentzat egokiak izan daitezkeenak formulatzea.
- Nork bere ikasteko modua hobetzeko konpromezua hartu eta idatziz zehaztea.
- Hartutako konpromezua mural baten jarraipenaren bidez bideratzea.

### Zertan den:

Ataza honen bidez, lehenbizi, ikasleek klastetik kanpo euren ikaskuntza sendotu eta aberasteko dituzten aukeren berri ematea nahi dugu. Ondoren, euren ikasteko modua hobetzeko konpromezuaren jarraipena mural baten bidez bideratuko da. Bertan, ikasleek ikasgelatik at euskara ikasteko egiten dituzten eginahak jasoko dituzte egunez egun, ahal bada, edota astez aste.

## PROZEDURA:

1

**Atazaurrea:** lau pertsonen aurkezpena ikus-entzun

- **7. bideo-pasarlean** lau pertsonak euskaltegitik kanpo euskara ikasteko zer egiten zuten ikusiko dute. Lehendabizi lau pertsona horien aurkezpena ikus-entzungo dute, taula aurrean dutela. (5')

**Ataza:** aurreikuspenak

- Aurkezpenaren araberrako aurreikuspenak egingo dituzte binaka, taulako esaldietako bakoitza nork esan duen asmatzen saiatuz. (20')

**Feedbacka**

- Lagun horiek zer esaten duten entzungo dute **8. bideo-pasarlean**, eta euren aurreikuspenekin alderatuko. (10')

2

**Atazaurrea:** taula bete

- Egindakoa denen aurrean aurkeztuko dute. (10')

**Ataza:** konpromezua hartu

- Ikasle bakoitzak, hobetzeko bidea aukeratu beharko du. Emandako taulan hemendik aurrera egiteko prest dagoena zehaztuko du idatziz. (10')

# 2. Atazak



**Feedbacka** • Irakasleak bideratuko du denon arteko feedbacka. (10')

**Atazaostea** • Azkenik, ikasleen konpromezuaren jarraipena bideratuko duen murala egingo dute denen artean. Irakasleek egunero (edo astero) egindakoarekin bete beharko dute ikas-taroan zehar. (10')

Adibidez

	astehena	astearta	asteazkena	osteguna	ostirala
<b>Jon</b>	Goenkale ikusi	..... .....			
<b>Nekane</b>	Egunkaria irakurri	euskarazko diskoa erosi			
...					



IK. LIB. 4.5.

Irakasleak, bere liburuan, *Abereen etxaldea* eleberria irakurtzeko proposamena aurkituko du (Ikus ikaslearen liburuan, material osagarriak 4.5.). Klasean komenta dezakezue: bakoitzak ariketa etxean nola egin, liburua klasera eraman bistadizoa eman diezaioten, bideoaren zatitxo bat ikusi hizkuntza-mailaren eskuragarritasunaz konturatzeko ...

## PORTAFOLIOA

Portafolioa ebaluazio jarraia egiteko tresna baliotsua da ikasle eta irakaslearentzat. Kontua *modeloek* eta antzeko profesionalak eramaten duten *book*-aren antzekoa egitea da: norberaren bilakaera erakusten duen bilduma, denboran zehar gertatutako aurrerapausoen karpetatxoa.

### BEHAR DEN MATERIALA

Karpeta edo antzekoa, audio edo bideo-zintak, eta koaderno berezia diarioa edo egunerokoa idatzi nahi duenarentzat.

### ZER GORDE

#### HASIERAKOAK

*Irakasleari gutuna*

*Galdeketa*

#### IKASTAROAN ZEHARREKOAK

##### Irakasleak aukeratuak

- *idazlanak*
- *ikastunitate bakoitzaren autoebaluazioa*
- *ahozko grabazioak* (akats fosilduen diagnostikoa egiteko)
- *bakarrizketak* (audio edo bideo-zinta grabatuak)
- *elkarrizketak* (audio edo bideo-zinta grabatuak)

##### Norberak aukeratutakoak

- *diarioa edo egunerokoa*
- *horman jartzen diren koadro/grafikoen gaineko gogoetak*
- *idazlanak*
- *ikasleak interesgarritzat jotzen dituen atazak, ariketak...*

#### BUKAERAKOAK

*Irakasleari gutuna*


*Egindako aurrerapenen / hobekuntzen zerrenda eta autoebaluazio berezia edo orokorra*

*Horretarako, ikastaldi bakoitzaren bukaeran, nork bere karpetan islatzen den prozesua aztertuko du.*

# 3. Eranskinak


# A

## Ataza: Ikusi eta ikasi:



### 1. BIDEO-PASARTEA Iraupena: 2' 50"

Antton Ikusi duzu?  
Kattalin Ene! Hori mafiaren antzekoa da-eta!  
Antton Jakina! Ikusiko duzu zinta hori kazetarien esku uzten dutenean!  
Kattalin Eta zergatik ez Ertzainen esku utzi? Eurek konponduko dute, ez?  
Antton Ertzaintzaren esku ez. Begira, honen helburua Unibertsitatean axolagabekeria salatzea da. Ikasleek ez dute non ikasi. Behin eta berriro eskatu diote Unibertsitateari, bueno, eskatu dugu esan beharko nuke toki apropos bat ikasteko eta inoiz ez dugu erantzunik jaso.  
Kattalin Koitaduak! Ez dago eskubiderik. Ertortzea daukate hona. Egokituko diegu txokoren bat.  
Antton Hombre, Kattalin! Ez dago gaizki esana hori. Eta zer iruditu zaizu...  
Kattalin Zer deritzodan grabazioari?  
Antton Itxurosoa, ezta?  
Kattalin Zu tarteko, ezta?  
Antton Ez dakizu nolako komeriak ibili genituen bideo-kamara hori liburu artean ezkutatzeko, bueno!  
Kattalin Bai. Hala ere (Zer?) musika ez dakit ba, oso egokia ote den ikasleentzat, eh? Erreparatu diozu letrari? (Bai) Abestiaren letrari? (Um) Abestiaren arabera jakituria ez dago liburuetan, kaleko errealtatean baino. Kaltegarria ikasle odol beroentzat, ezta?  
Antton Bai, baina, mezua... mezua positiboa da. Bizitza errealeko arazoei aurre egitera bultzatu nahi gaituela dirudi.




### 2. BIDEO-PASARTEA Iraupena: 59"

A.B.: Epa!  
Antton Egun on!  
Kattalin Bazatuz, eh?  
A.B. Bai, banator. Zu, arrazoi dauka, eh? Kanta horren hitzak ez du esan nahi liburuetan ez dagoenik jakinduririk, ezta gutxiago; baina benetako eskola kalean eta bizitzan bertan dago.  
Antton Esan dizut!  
Kattalin Hara, badirudi zeuk idatzia dela, eh?  
A.B. Hala da.  
Antton Horixe, Andoni Basterretxea! Zelan, motel?  
A.B. Ondo esan behar.  
Kattalin Delirium Tremens-ekoa? (Bai.) Hala!  
Antton Nahi duzu zerbait hartu?  
A.B. Bai, eskerrik asko, zurito bat.  
Kattalin Bai, oraintxe.  
Antton Eta nik kafetxo bat, Kattalin, hau hoztu da eta.  
Kattalin Bai, bai.  
A.B. Egundoko eskandaloa sortuko duzue bideo hori telebistan agertuz gero.  
Antton Gogorra iruditzen zaizu, ala?  
A.B. Ez eta baterel! Gutxi!  
Antton Horrelako gauzak kaleratu egin behar dira. Beti ixilik geratzen gara eta azkenean nahi dutena. Hemen leku bat behar dugu eta lortuko dugu leku hori.  
A.B. Hori da.  
Antton Zer Kattalin?  
Kattalin Bai?  
Antton Motel samar zabiltza gaur!  
Kattalin Bai.  
Antton Sagardotegian atzo, edo?  
Kattalin Aldrebestuta nabil gaur, eh?  
Antton Ona sagardoa, eh?  
Kattalin Hemen egon nintzen, hemen egon nintzen.

### Ataza: Zorria baino alferragoa

#### B.1: Zelan ikasi gura duzu?




#### 3. BIDEO-PASARTEA Iraupena: 2'

- Nerea Epa!  
Ikasle2 Kaixo! Arratsalde on!  
Ixabel Arratsalde on! Zer duzue?  
Nerea Ba, gu Anttonen ikasleak gara.  
Asier Bai telebistakoak, eskandalokoak.  
Ixabel Eta?  
Xabier Bai, liburutegian lekurik ez dutenak. Zuk ba omen duzu txokoren bat guretzat, hemen ikas dezagun, ezta?  
Ixabel Ez dakit zer dabilkizuen nire errain horrekin, baina momentu honetan ez dago. Segituan etorriko da, eseri zaitzete bitartean.  
Ikasleak Eskerrik asko.  
Ixabel Zer hartuko duzue?  
Nerea Botila bat ur.  
Idoia Lau basotan, mesedez.  
Ixabel Holakoa?  
Ikasleak Ez, ez, beste... txiki horietako bat.  
Ixabel Bueno.  
Xabier Badaukazue dirurik?  
Asier Gutxi, baina bai.  
Idoia 25.

••• "Ordu t'erdia beranduago"

- Kattalin Ufffa! Arratsalde on!  
Ixabel Kaixo, arratsalde on! Bada ordua, Jaungoiko Bedeinkatua! Non demontre ibili zara?  
Kattalin Barkatu berandu etorri izana, baina jende-mordoa egon da dendan. Zer gaur jokorik ez ala?  
Ikasleak Horrek bai.  
Ixabel Ikasleak omen dira (Zer gertatzen da?) eta Anttonek txantajeatu egin omen ditu, zuk toki bat eskaini omen diezu eta nik uste dut hor daudela telebista etorri arte.  
Kattalin Bai? Nik tokia eskaini diedala?  
Ixabel Hala diote.  
Kattalin Begiratuko dut, aber, ez naiz gogoratzen, baina...  
Ixabel Izan ere, hor daude arratsalde guztian. Botila txiki bati begira. Ez dakit gose-greban edo zer dauden.  
Sagrario Baliteke, gaur egun ikasleak beti protestaka ibiltzen dira.  
Julen Hauek ez ikastearren edozer gauza.  
Ixabel Izan ere, ikasle hauek zorria baino alferragoak dira.

## Ataza: Zorria baino alferragoa



### B.2: Baina, baina, baina... bainak lapikoan!

#### 4. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 3'. 38"

1. zatia: 1'34"

2. zatia: 2' 04'

#### 1. zatia


- Idoia Kattalin, lehengo egunean Anttonekin egon ginen hizketan eta hemen txoko bat utziko zenigula esan zigun, tabernan ikasteko eta hori.
- Kattalin Nik, ba, ez naiz akordatzan nik hori esan izanaz. Izan ere, tabernako giroa ez dut uste egokia denik ikasteko, eh?
- Nerea Oker zaude, eh? Ez duzu cyber-tabernen berri?
- Kattalin Ez.
- Nerea Bueno, ba, Unibertsitateetan kanpusak daude, ez? Eta kanpus barruan liburutegia, ikasgelak eta hori guztia. Orduan cyber-tabernako kanpua taberna izango litzateke eta orduan ordenagailua, bueno, ba, liburutegia, ikasgelak... ulertzen duzu?
- Xabier Ez dugu irakaslearen beharrik, Kattalin. Laguntza behar izanez gero, Internet-en kontsultatuko dugu. Bai informazio idatzia jasotzeko, baita beste pertsona batzuekin komunikatzeko ere.
- Asier Ikas-materialak ere aukeran izan ditzakegu. Instant batean komunika gaitzake urrutiko artxibo batekin. Bideo bat edo hitzaldi batean parte har dezakegu, hantxe bageunde bezala.
- Nerea Gainera, ikasteko erritmoa guk finkatzen dugu, eta ez beste batzuei komeni zaiena.
- Idoia Eta hemen lagunen artean giroa sortzen dugu eta motibatzen gara eta asko ikasten dugu.
- Kattalin Horiek aurrerapenak, baina nork esango dizue ondo ala txarto zabilatzaten?
- Asier Ebaluazioa esan nahi duzu? Autoebaluazioa etengabekoa da.

.....

#### 2. zatia

- Kattalin Ez dakit, ba. Ez dakit. Ez diot aterramendu onik ikusten honi, zuek hemen zaudetela. Gainera, beldur naiz ez ote diren ohiko bezeroak deseroso sentituko eta beste taberna batera alde egingo. Eh, begira, hor barran dagoen bikote hori xake jokariak dira, eta ostegunero ordu honetan eta mahai honetan jokatzen dute. Orain zuen zain daude. Zuek joateko zain.
- Asier Xakezaleak utzi nire kontu.
- Kaixo.
- Julen Kaixo, arratsalde on!
- Sagrario Zer?
- Asier Partida hasieran daukazue, ezta? Humm! Pantaila. Mugimenduak, uhu! Eta orain, mugitu.
- Xabier Asier ere xakezalea amorratua dugu. Internet-en bidez nazioarteko xakelarien klub batekin harremanetan dago. Eta partiduak bakarrik ez, eh? Jolastu ere egiten du, eta primeran.
- Kattalin Lehen esan duzuen moduan, hortaz?
- Xabier Bai.
- Idoia Autoikaskuntza. Zita bat duzu Karpov-ekin hemen, Barrenen.
- Nerea Barrenet.
- Barrenet-en.
- Kattalin Hara, jendea hona denbora pasatzera etortzen da. Trago batzuk hartu lagun artean, egunkariei begirada bat eman lasai-lasai, eta horrela...
- Xabier Horientzako ere izango dugu guk zer eskaini. Mundu guztiko egunkarietara jotzeko aukera.
- Kattalin Zuek gazteok dena erraz-erraza ikusten duzue, baina hori guztia ez da musutruk izaten eta gainera ordutegia dago. Auskalo ze ordutan ibili nahi izango duzuen!
- Nerea Ez kezkatu horrekin, eh? Gu jende serioa gara eta. Dena, ba, dokumentu batean idatziko dugu. Kontratu bat.
- Kattalin Humm. Ez dago txarto esanda. Hala ere utziezadazue egun batzuk egitasmo horiek ausnartzeko, bai?


## Ataza: Ohean eta binaka



### 5. BIDEO-PASARTEA Iraupena: 2' 33"

#### Nola eta non gustatzen zaizu ikastea?

- Asier Niri gehienbat ikastea liburutegietan gustatzen zait ikastea, hemen beti jende gutxiago egoten delako, soinu gutxiago egoten delako eta jende ezaguna egoten delako beti dudak galdetzeko orduan. Etxean beti normalean soinu asko egoten da, telefonoa dela, jendea ibiltzen dela, nahiz eta atea itxita egon, beti gauza gehiago daude begiratzeko, telebista dela... eta orduan soinu gehiago eta ezin da ondo... ondo ikasi. Liburutegian berriz, ez dago beste zereginik, ikastea besterik ez. Orduan beti gusturago egoten zara egin behar duzuna egiten, eta gainera jendea dagoenean, ba, dudak galdetzeko eta horrela hobeto.
- Koldo Etxetik kanpo ikastea gustatzen zait, ze etxean gutxi ikasten dut eta, telebista dela, zerbait jateko altxatzen zarela, ez duzu asko ikasten eta horregatik nahiago dut etxetik kanpo ikastea.
- Txillardegi Bueno, nik uste dut gauza bat dela, ez dakit, hitz egitea gauzei buruz eta hola, bueno, orduan oso interesante izan daiteke, oso atsegina, ba, jendeekin eta erdi brometan, eta hitz egitea. Baina nik uste dut ikasi behar baldin bada, nik uste dut ikasi behar dela benetan mahai baten gainean jarrita, norbera bakarrik bere buruarekin eta nik uste dut... nik behintzat horrela ikasi dut, ezta? Noski, gero beste gauza batzuetarako beharbada, ba, elkarrekin iritziak trukatzeko eta horrela izan daiteke aberasgarria, baina nik uste dut, bestela, ikasi, ikasi nik behintzat ikasi dudana, segurutan, ikasi dut neure aldetik bakarrik. Hori da nire inpresioa, bai.
- Imanol Ikasi, ikasi, bakarrik. Ze horrela ni konturatzen naiz ba, zer dakidan eta zer ez dakidan, baina jende ezagunarekin, ba, dudaren bat baldin badaukat edo, ba, galdetzeko, edo, bestela deskantsatzeko orduan, ba, jende gehiagorekin egoteko edo, behintzat bakarrik ez egoteko. Eta etxean ez, etxean beti daukazu telebista edo musika, frigorifikoa eta beti norabaitera joaten zara, eta hori, eta, gainera, liburutegietan askoz hobeto. Kontzentrazioa hobeto bilatzen da eta hori, lekua baldin badago liburutegietan, ba liburutegian. Bestela, ba, kafetegiren batean edo ahal den lekura joaten gara.



### 6. BIDEO-PASARTEA Iraupena: 4' 31"


- X. Elortza Pertsona bakoitzak bere ikas-estiloa du eta estiloek gure ikasteko joera edo preferentziak islatzen dituzte eta besteak beste gure nortasuna ere bai. Norbaitek galdetzen duenean zein den ikasteko modurik onena erantzuna ez da batere erraza, ez baitago errezetarik. Ikasteko modurik onena nolabait definitzekotan ondo eta arrakastaz ikastea ahalbidetzen duena da. Horrek zera esan nahi du, norberak bilatu behar duela bere bidea, estrategia ezberdinak eta probatuz ikasteko biderik baliotsuena aurkitu behar duela. Estrategien arlo honetan esan behar da bakoitzak aurkitu behar duela bere estrategia, baina badirela hainbat estrategia denontzat baliagarri edo ia-ia ezinbestekoak ere badirenak. Adibidez, norberak ikasitakoa hanka sartzeko beldurrik gabe, okerrik egiteko beldurrik gabe erabiltzea leku guztietan, etxean, euskaltegian, lantokian. Esate baterako, norberak idazten dituen oharak euskaraz idatziz, hiztegia ikasteko, hitzak sailkatu eta irizpideen arabera antolatu edota esaldi eginak buruz ikasiz. Autobusean edo lagunartean edo tabernan belarria jarritz, Euskal Telebista eta irratia entzunez, euskaraz daukagun edozein testu irakurriz: egunkariak, aldizkariak, iragarriak... zalantzarik gabe, gauza asko egin ditzake norberak bere kaxa.

# 3. Eranskinak

Bakarkako lan horrek baditu bere onurak, dudarik ez. Norberari bere erritmoan ikasteko aukera eskaintzen zaio, eta beste alde batetik nahi duena edo komeni zaiona ikasteko bidea eskaintzen dio bide horrek. Hala ere, ez da hori ikasteko bide bakarra eta taldelana ere oso aberasgarria dela esan behar da, alde batetik, besteen laguntzaz ikas dezakegulako: bi begik... lau begik, barkatu, bi begik baino gehiago ikusten dutelako, eta bi buruk buru bakarrak baino gehiago ikasteko bidea duelako, eta, gainera, lagunarteko giroan ikastea beti ere motibagarriagoa eta aberasgarriagoa bihurtzen delako. Bestalde, ulermenari dagokionez ere gauza pare bat esan nahi nituzke: bata, irakurtzeko moduari dagokiona, izan ere, oso garrantzitsua da helburua kontuan izatea entzuten edo irakurtzen dugunean, eh? Zertarako irakurtzen dugun edo entzuten dugun, eta horren arabera irakurtzea edo entzutea oso garrantzitsua; eta bestea, testuinguru erabiltzearen beharra. Alegia, zerbait entzun edo irakurtzen dugunean, testuinguruari erreparatu behar diogu ulertzen ez duguna argitzeko. Ezin gara geratu, nolabait esan, ataskatuta hitz bat ulertzen ez dugulako, ulermen-atal horretan, nolabait ere geldituta, motelduta.

Amaitzeko, gramatikari buruz ere aipu bat ere egin nahi nuke. Oraintsu arte gehiegizko garrantzia eman izan diogu gramatikari bai irakasleek eta bai ikasleek, eta ez dut esan nahi gramatika beharrezkoa ez denik, baidik eta nolabait ere enfoke berri bati bidea eman beharrean gaudela. Alde batetik, irakasleok orain arteko eskola magistralak eta modu isolatuan irakasteko moduak pixka bat gainditu eta kontestuan txertatuta irakasten hasi behar dugula. Eta, bestetik, ikasleek ere irakaslearen menpe egotetik pixka bat askatu eta beren kabuz formari erreparatu eta bere hipotesi propioak eraikitzen edo hasi beharra daukagula.

## Ataza: Jalgi hadi plazara!




### 7. BIDEO-PASARTEA Iraupena: 3' 43"

- Ludger    Bueno, nire izena Ludger Mees da, alemana naiz jaiotzez eta nere bizitzaren parterik handiena igaro izan dut Alemanian. Gero orain dela 12-13 bat urte izango zen hona etorri nintzela, hain zuzen ere nire tesi doktoralara egiteko asmoz eta orduantxe hasi nintzen, ba, euskara ikasten. Ni lanbidez unibertsitate-irakaslea naiz hemen, Euskal Herriko Unibertsitatean eta Historia ematen dut.
- A. I.M.    Ni Ana Isabel Morales naiz, 29 urte daukat eta Bilbon jaio nintzen. Ikasketaz euskal filologoa naiz eta lanbidez itzultzaile. Lan-hizkuntzak gaztelania, euskara eta ingelesa dira. Ni euskara ikasten hasi nintzenean, bueno, ez neukan oso ideia garbirik zer egin behar nuen, inoiz bukatuko nuen ikasten. Ba, hasieran eskola partikular batzuk hartu nituen, gure eskolan ez zen irakasten euskararik eta hartu genituen eskola batzuk, oinarritzkoa hartu genuen, nik bezala beste ikaskide batzuek, eta horrekin asko ilusionatu nintzen eta pixka bat modu informal edo autodidaktiko samarrean, ba, han-hemenka bildutako liburuekin eta lagunek utzitako materialarekin jarraitu nuen, eta bueno, azkenik, ba, jada Hizkuntz Eskolan sartu nintzen eta han, bueno, pixka bat eskola jarraiagoak hartu nituen eta lortu nuen gutxi gorabehera ondo ikastea, eta hortik ba, Unibertsitatera sartu nintzen, jada hautatu nuen karrera Euskal Filologia hautatu nuen, eta hortik aurrera, bueno, berez joan zen euskalduntze-prozesua, bueno, inoiz ez da burutzen, baina bueno, jarraitzen, sakontzen segitzea, ezta?
- Jabier M.    Jabier Muguruza naiz, idazle eta musikaria, irundarra eta orain dela urte mordoxka hasi nintzen euskara ikasten. Kalkulatzen dut 22-23 urtekin edo hasiko nintzela ikusita, bueno, gurasoak euskaldunak zirela eta aiton-amonak eta denak familian pentsatu nuen, ba bueno, ba hor, katea horretan, gure belaunaldian mozteten zela, eta, bueno, erabaki nuen anaiekin batera eta euskara ikastea. Eta bueno, apuntatu nintzen udal-euskaltegian, geroztik AEKn ere ibili nintzen eta, bueno, hori izan zen pixka bat nire erabakia eta nire hasiera.
- Laura M.    Laura Mintegi naiz, Laura Mintegi Lakarra, 2. deitura eta beste guztiak ere naparrak ditut, Nafarroan jaiotakoa naizelako, Lizarra herrian, amaren herri berean. Aita bizkaitarra, Zornotzakoa, euskalduna omen zen, baina



nik tutik ere ez nion entzun etxean inoiz. 17 urte nuela konszienteki pentsatu nuen nik euskara ez jakitea ez zela berez datorren gauza baizik eta arazo batzuegatik sortutakoa, eta ikasteari ekin nion kontzienteki. Batez ere, ba, ezin niolako nere buruari "bascoa" deitu, "bascoen" hizkuntza ez banuen ezagutzen. Orduan Euskaltzaindiak Bilboko Plaza Berrian zituen lokaletan hasi nintzen ikasten, 71-72. ikasturtean, bi urtez ikasi eta 3.ean, jada, irakasle hartu ninduten.



## 8. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 8' 42"

- Laura M. Bueno, baziren bi estrategia-mota. Bata amankomunean egiten genuena gelako guztiok eta hori izaten zen oso hemengoa: tabernaz taberna edaten joatea. Gibelerako txarto baino hizkuntzarako ondo zetorrena, ez? Horretatik aparte, nik ez nuen euskaldun bakarra ere ezagutu garai hartan. Eta, egia esan, ezagutu nuen lehenengo mutilarekin gaur bizi naiz. Geroago konturatu naiz horretaz, ez? Nik egin nuena izan zen euskal giroa bilatu. Topatzen... ezagutzen ez nuen horren bila joan. Orduan behin eta berriz bertsolariak entzutera joaten nintzen, tutik ere ulertu gabe, baina amorratuta besteek barre egiten zutenean eta nik piperrik ere ulertzen ez nuenean. Eta amorrur horrekin etxera joan eta liburuak irentsi egiten nituen. Eta beti ahalegindu nintzen euskal giroa bilatzen, ez zegoen lekuan ere, eta bilatuz gero aurkitu egiten da. Denborarekin gelan bertan, unibertsitatean, ikaskide euskaldunak zeuden, etxebizitzan ere bai, gutxien espero nuen lekuetan euskaldunak aurkitu nituen, nire ustez erdaldun hutsak zirenak, beraien bila aritu aurretik.
- Jabier M. Anaiekin batera eta sartu ginen, ez dakit nola deitu, proiektu horretan, edo bueno, euskara ikasteko proiektu horretan, ez? Eta serio sartu ginen, ez gu bakarrik, gure neska lagunak ere bai, eta denok sartu, gure arteko harremanak ere euskaraz edo bueno, egiten genuen euskara kaxkar hartan hasi ziren garatzen eta, bestalde, euskaltegiko klaseak eman... emateaz aparte, irratia entzuten nuen. Irratia ere inportantea izan zen garai hartan gogoratzen naiz, sukaldean eta bazkaria prestatzen ari nintzela eta egunero egunero entzuten nuela, ez? Euskadi Irratia, eta izan zuen bere garrantzia, ez? belarria lantzeko eta prozesu horretan. Gero saiatu nintzen ba, bueno, ahal nuen alde guztietatik, ez? prentsa irakurtzen, literaturan aurkitu nuen oso altxor, niretzat preziatua: aurkitu nituen bizpahiru, lau idazle nire gustukoak eta oso inportantea izan zen niretzat. Gainera, erakutsi zidaten bazegoela hor mundu bat eta gauzak egin zitezkeela euskaraz oso modu interesgarrian, ez? Eta bueno, gero, nola suerte oso handia izan nuen harremanetan eta, bueno, hor musika-munduan eta sartu nintzen harremanetan, idazle horiekin eta kolaboratzaile horiekin, eta bueno, suertatu zen oso aberasgarria. Gero jada, nik uste dut gauzak joan zirela, bueno, ba, nahi gabe, ez? Hitzak egin eta bestea eta musikariekin ere, Lete zela eta, Laboa eta... konturatu gabe sartzen zara, murgiltzen zara jada mundu horretan, eta geroztik nik esango nuke ba, erraza, erraza izan dela eta momentu honetan, bueno, niretzat euskaraz bizitzea edo, bueno, euskaraz eta gazteleraz, baina euskaraz gehienbat, ba, gauza naturala dela.
- A.I.M. Nik lan handia egin nuen neure aldetik eta horrek asko motibatu ninduen. Ni hasi nintzen euskara ikasten, esan dudan bezala, ba, zati eder bat neure kontutik egin nuen eta, ba, esan behar dut, bide horretatik, adibidez, eskuan neuzkan gauza guztiak irakurtzen nituela, eh, ahal baldin banuen, ba, euskaldunen hizketa entzun kalean, edo autobusean, edo liburuak irakurri... gogoratzen dut Xabier Gereñoren *9 nobela labur* izan zela nire lehen liburua... irakurtzeko esan nahi dut. Eta oso garrantzitsua izan zen nire euskalduntze-prozesuan niri iritziz, ba, neure interesekin zerikusia zeukaten gauzak euskaraz hartzea. Ba, hitzaldietara joan edo artikuluak irakurri, errebistak, ba, ez dakit... garai hartan gutxiago zegoen, beharbada, baina... bidaiei buruzko artikuluak, edo, bueno, nire interesik buruzko gauzak euskaraz hartzea. Horrek asko motibatu ninduen euskara ez zelako ikasi behar zen materia bat, hotza, edo eskolako kontu bat, neure intereseko gauzetara iristeko bide bat baizik. Orduan, ba, bueno, esan behar dut neure euskalduntze-prozesuak, eh, zenbait... bueno, zelanbait adarkatze bat eduki duela, ezta? Bi adar moduan. Ni hasi nintzenean, eh, Hizkuntz Eskolan ikasitakoa denboran bizkaiera asko entzuten nuen nahiz eta nik, ba, batuaren bideari eutsi nion,

### 3. Eranskinak

baina neure inguruan asko entzuten nuen eta gainera nik baneukan sentimendu bat, eta zen nire etxeke euskaldunak izan zirenak eta gero euskara galdu zutenak bizkaitarrak zirela eta ilusio handia egingo zidala, ba, euren euskara ulertzea heltzea. Eta gero karreran asko landu nuen hori, asko gustatzen zitzaidan, ba, euskaldun zaharrekin berba egitea eta orduan, horrela ere nahiko modu naturalean sartu zen bizkaiera nire bizitzan. Eta orain, ba bueno, euskaldun zahar batekin, gainera nire amamaren herrikoa den batekin bizi naiz eta, orduan, ba, pentsatzen dut, nire amona biziko balitz berarekin ondo egiteko moduan egongo nintzatekeela.

Ludger Bueno, ni hasiera-hasieratikan hasi nintzen, eh, garai hartan HABEK Donostian zeukan euskaltegian, halako ikastaro trinko bat egiten, 5 edo 6 hilabetetako, ba, egunero ordu-mordo bat, eta benetan oso... hasieran oso gogorra izan zen. Ba, gogoratzen naiz hasieran, ba, ni benetan sentitu nintzela erabat tontoa, ez bainuen ezertxo ere ulertzen, nire klasekideak behintzat egun on, eta arratsaldeon eta bat, bi hiru eta halako gauzak esaten bazekiten, nik, ordea, ezer ez.

Gero, oso buru gogorra naizenez gero, ba, hasi nintzen ba, pixka bat euskararen logika harrapatzen, eta pixkanaka-pixkanaka aurrera joan nintzen, ikastaro hori amaitu nuen eta gero nire kabuz ere, ba, jarraitu nuen, ba, hainbat gauza egiten. Eta beharbada, bi gauza aipatzekotan, alegia, ba, niri oso lagungarri suertatu zitzaizkidan gauzak, ba, alegia klasetik kanpo egindako gauzak aipatzearen, ba, honako biak aipatuko nituzke: alde batetik, ba, garai hartan askotan, ba, mugitzen nintzen ba, autoz, ba bidaiak egiten artxiboetara joateko eta abar, eta orduan, ba, denbora hori aprobetxatzeko, ba, irratia pizten nuen, Euskadi Irratia entzuten nuen, eta, ba, nahiz eta hasieran, ba, ezer gutxi ulertu, ba, ikusten nuen geroz gehiago ulertzen nuela, eta geroz eta gehiago sartzen nintzela, ba, han egindako elkarrizketetan, han egindako, ba, erreportaietan eta abar, eta abar. Hiztegia hartzen joaten nintzen ere bai, belarria egiten, eta gauza bera, gero gauean, ba, Euskal Telebistarekin gertatzen zen, ba, batez ere hango debateak entzuten nituen, eta, bueno pues, horrekin asko, benetan asko ikasi nuela uste dut. Bigarren gauza bat izango litzateke, beharbada hori zailagoa izan zen, ba, ziren nire lagunak. Nire garai hartako nire lagunak, ba, orain artean euskaldunak asko ziren eta euskara hasi baino lehenago ezagututako lagunak ziren. Eta, beraz, aurretik, ba, beraiekin beti erdaraz edo gaztelaniaz mintzatzen nintzen, eta gero jada, nolabaiteko maila, gutxiengo maila batera iritsi ondoren, ba, eskatzen nien, ba, mesedez, beren txip-a aldatzeko eta nirekin, poliki baldin bazen ere, ba, euskaraz mintzatzeko. Eta bueno, noski, horrek, bueno, eskatzen zuen haien aldetikan ikaragarritzko pazientzia ni bezalako pelma batekin lasai eta poliki hitz egitea ere beharrezkoa zen erabat. Baina horrela, pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago, ba, joaten ginen, ba, bueno, benetako elkarrizketak egiten, eta horregatik, gaur egun esan dezaket, eta hemendikan ere hori aitortu behar dut, nire lagun horiei esker ere, ba, ikasi nuela euskara.

